

MARKINA-XEMEIN / Irakurketa elkarregaz landu ahalko dute umeeak eta gurasoak

Galtzagorri Elkarteak bost herri aukeratu ditu egitasmoan parte-hartzeko, eurretako bat, Markina-Xemein.

Eider Mugartegi

3 eta 6 urte bitarteko umeeak eta euren gurasoak irakurketa sustatu eta elkarregaz egoteko aukera edukiko dute datorren zapatutik aurrera herri bibliotekan. Galtzagorri elkarteak irakurketa tailerrak ipini ditu martxan Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako bost herritan, eta eurretako bat Markina-Xemein izango da.

Liburuen aurkezpenak, ipuin kontaketak, antzerkiak, iruzkinak eta hainbat ezusteko edukiko dituzte Galtzagorri Elkarteak antolatutako ekimenean parte hartzen dutenek. Hiru saio egingo dituzte, bakoitza hilabete batean, eta denak zapatuetan izango dira, 11:00etatik 12:00ak ingurura. Adituek gidatuta

Egitasmoa Haur eta Gazte Liburuaren Espainiako Elkarteko (OEPLI) eta Galtzagorri Elkarteko presidente Itziar Zubizarretak zuzendu du, baina saioak bi adituk gidatuko dituzte: Rai Bueno eta Miriam Mendoza ipuin kontalariek.

Saio bakoitzean bibliotekan eskura egongo den bibliografia egoki bat aurkeztuko dute, eta adin bakoitzeko liburu interesgarriak aurkeztuko dituzte. Ilustrazioei ere leku berezia egingo diete, eta ahozko kontaketak ere egingo dituzte. Ezustekoentzako lekua egongo dela ere aurreratu dute.

Umeak eta gurasoak batera

Egitasmoaren helburuak irakurketa sustatzea, kalitatezko euskal bibliografia ezagutzea, guraso eta haurren arteko irakurketa giroa sortzea, gurasoak ozenki irakurtzen trebatzea eta umeeak giro lasai batean goza dezaten lortzea dira. Beraz, ekimena ume zein gurasoentzako prestatuta dago. Doan da, baina parte hartu nahi duenari eskatzen zaion gauza bakarra hiru saioetara joatea da.

Izena emateko herri bibliotekara joan behar da. Baina aurretik herri bibliotekak berak izena emateko orria bidaliko du etxe guztietara. Orri hori beteta eroan beharko da, gero, berriz bibliotekara.

Egutegia

1. saioa. Urriak 18.
2. saioa. Azaroak 15.
3. saioa. Urtarrilak 17.